# jokulariak137

EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA
BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES Y ACTRICES VASCAS
udaberria 2025 primavera



# NAGORE ARANBURU
## "ZORTEKOA NAIZ"


AISGE
es lo tuyo
Si eres actor o actriz audiovisual,
¡HAZTE SOCIO!
No te costará nada,
Te beneficiarás de nuestra labor asistencial y formativa
Y recibirás los derechos que te corresponden
aisge
www.aisge.es
Tel. 943 271 599




137

udaberria
primavera
2025

**Azala** Argazkia
Asier Corera


17





06


10

# AURKIBIDE


04 **EDITORIALA**

06 **ELKARRRIZKETA**
**Nagore Aranburu**
Alizia Otxoa

10 **Eskerrik asko Vaivén**
Ana Pimenta, Iñaki Salvador, Aizpea Goenaga, Dorleta Urretabizkaia, Getari Etxegarai, Nerea Gorriti, Patxi Pérez

17 **EGINDAKOAK**
**Pablo Razuk**
Josune Gorostegi, María Pastor
**Mikel Rueda**
Gaizka Mikelarena, Amaia Ruiz de Galarreta, Alain Elizalde



# jokulariak

EAB Euskal Aktoreen Batasuna

EUSKAL AKTOREEN
BATASUNAREN BERRIPAPERA

DONOSTIA
Portuetxe nº 23 A
4º Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 943 31 48 22

BILBAO
Bilbaoeszena
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 944 33 37 86

eabdonostia@euskalaktoreak.eus
eabbilbao@euskalaktoreak.eus
www.euskalaktoreak.eus

**Koordinazioa eta edizioa**
Jon Koldo Vázquez, María Pastor
**Testuen zuzenketak**
Uzuri Guridi, Rakel Ezpeleta

**Maketazioa, diseinua**
I. Z.
**Inprimategia**
Antza
LG/DLSS168/2000


Gogoratu aldizkari hau denona dela eta gustura hartuko genituzkela zure iritzi eta artikuluak.

Recordad que esta revista es de todas y todos, y que gustosamente recibiremos tus opiniones y artículos.

Editoriala

# AURPEGIAN IRRIBARRE BATEKIN ETA OIN AZPIAN ESZENATOKIA IZANDA **AGUR ESATEA**

Bizitza etengabeko joan-etorria da. Aldaketak, hasierak eta amaierak zirkulu perfektu gisa gurutzatzen dira, non etapa bakoitza aurrekoaren mende dagoen eta hurrengoari bide ematen dion. Ez dago amaierarik gabeko hasierarik, ezta aurretik kontatzea merezi duten konturik gabeko agurrik ere. Hori da, beharbada, 137. Jokulariak alearen haria.

Gaur antzerki-konpainia bati agur esatea dagokigu. Eszenatoki, entsegu eta azken funtzioko argiak itzaltzen direneko magiaren zaporea duen agur bat. Vaiven Producciones-i agurra. Balio sozial, arte eta komunitatearen benetako motoreak izan diren antzoki eta espazio kulturalen ateak istea tristea den arren, bizitakoa ere ospatuko dugu. Izan ere, konfidantza, lana eta emozioak partekatuz eraikitako familia artistikoek bide berriak hartzen dituztenean, gurekin beti eramango ditugun hamaika une uzten dizkigute. Agurrek beti hunkitzen gaituzte, eta hausnarketara garamatzaten kolore guztietako emozioak uzten dizkigute, bai gertutik bizitzen ditugunean, bai kanpotik begiratzen ditugunean ere.

Agian zu, afiliatu edo irakurle gisa, Vaivenen parte izan zinen. Edo agian ez zenuen ezagutzeko aukerarik izan. Baina ziur, inoiz proiektu artistiko baten parte izan bazara, badakizula zer sentitzen den zerotik zerbait eraiki eta oroimen bihurtzen dela ikustean. Hau da Vaiven Producciones konpainiari egiten diogun omenaldia: agur bat, bai, baina baita bizitakoaren ospakizun bat ere.

Auskalo, egunen batean agian Vaiven 2 iritsiko da, filmetan bezala. Edo agian ez. Agian, bizi izan zutenen oroimenean geratuko da, historia, anekdota, belaunaldiz belaunaldi transmititutako ondare bihurtuta. Hemendik, gure aletxoa gehitu nahi dugu, oroimenak bizirik jarrai dezan. Barrutik bizi izan zutenei ahotsa emateko. Artista izateak benetan zer esan nahi duenaren aitormen.

Azken Vaivena. Abiatu aurreko azken geltokia. Bastidoreen artean esaten den bezala: kaka pilla! Nagore Aranburu Vaiven unibertsotik sortutako artista horietako bat da. Gaur egun ibilbide sendo batekin, lankide, istorio berri eta eszenatoki gehiagorekin gurutzatzen jarraitu du. Horrelakoa baita bizitza: aurrera egin, ezagutu, ikasi, estropezu egin, altxatu. Bizitzea, azken finean. Eta poetek dioten bezala "bizitzea existitzea baino askoz gehiago da. Egunerokotasunean edertasuna bilatzea da, munduarekin eta norberarekin konektatzea, eta xehetasunetan ezkutatutako magia deskubritzea ".

Hori da interprete gisa egiten duguna: gero pertsonaia bihurtzen diren esperientziak bizitzea. Gizakiaren ispilu izatea. Elkar elikatzea, elkarrekin haztea. Eta horixe da, hain zuzen ere, azken hilabeteotan Pablo Razuk eta Mikel Ruedaren formakuntzetan egin duguna: gure buruak mundu berrietara zabaldu, ulertzeko eta sentitzeko modu berrietara.

Izan ere, nork nahiko luke izan nahi duguna ezin izan, eta nahi dugunekin bizi ezin dugun mundu batean bizi?

# EL ARTE DE DESPEDIRSE

## CON UNA SONRISA Y LOS PIES SOBRE UN ESCENARIO

La vida es un constante ir y venir. Cambios, inicios y finales se entrelazan como un círculo perfecto, donde cada etapa depende de la anterior y da paso a la siguiente. No hay comienzos sin finales, ni despedidas sin historias previas que merezcan ser contadas. Este es, quizás, el hilo conductor de esta edición de Jokulariak 137.

Hoy nos toca despedirnos de una compañía de teatro. Un adiós con sabor a escenario, a ensayos, y a la magia de las luces apagándose después de una última función. Un adiós a Vaivén Producciones. Aunque es triste ver cómo teatros y espacios culturales, que han sido auténticos motores de valores sociales, arte y comunidad, cierran sus puertas, también celebramos todo lo vivido. Y es que, cuando familias artísticas, construidas con confianza, trabajo y emociones compartidas, toman nuevos caminos, nos dejan un sinfín de momentos que siempre llevaremos con nosotros. Las despedidas siempre nos tocan, nos afectan y nos dejan una variedad de emociones de todos los colores que nos llevan a reflexionar, ya sea cuando las vivimos de cerca o cuando las observamos desde fuera.

Quizá tú, como afiliado/a o lector/a, fuiste parte de Vaivén. O quizá no tuviste ocasión de conocerla. Pero seguro, si alguna vez formaste parte de un proyecto artístico, sabes lo que se siente al construir algo desde cero y verlo transformarse en memoria. Este es nuestro homenaje a la compañía Vaivén Producciones: una despedida, sí, pero también una celebración de lo vivido.

Quién sabe, tal vez un día llegue Vaivén 2, como en las películas. O tal vez no. Tal vez se quede en el recuerdo de quienes lo vivieron, convertido en historia, en anécdota, en legado transmitido de generación en generación. Desde aquí, queremos aportar nuestro granito de arena para que su memoria siga viva. Para dar voz a quienes lo vivieron desde dentro. Para rendir tributo a lo que realmente significa ser artista.

El último Vaivén. La última estación antes de partir. Como se dice entre bastidores: ¡mucha mierda en la nueva aventura!

Nagore Aranburu es una de esas artistas que surgieron del universo Vaivén. Hoy, con una consolidada trayectoria actoral, continúa cruzándose con colegas, con nuevas historias, con más escenarios. Porque así es la vida: avanzar, conocer, aprender, tropezar, levantarse. Vivir, al fin y al cabo. Y como dicen los poetas “vivir significa mucho más que simplemente existir. Es buscar la belleza incluso en lo cotidiano, conectar con el mundo y con uno mismo, y descubrir la magia escondida en los detalles”.

Eso es lo que hacemos como intérpretes: vivir experiencias que después se transforman en personajes. Ser espejo de lo humano. Alimentarnos unos/as de otros/as, crecer juntos/as. Y eso es justo lo que hemos hecho en los últimos meses en nuestras formaciones con Pablo Razuk y Mikel Rueda: abrir nuestras mentes a nuevos mundos, a nuevas formas de entender y sentir.

Porque, ¿quién querría vivir en un mundo donde no podamos ser lo que deseamos y vivir con quienes queramos?

# NAGORE ARANBURU

## “Zortekoa izan naiz, ez naiz gelditu, gauza ezberdinak egin ditut hemen, eta kuttunak asko. Ikasteko aukera izan det lan bakoitzean”

Elkarrizketa **Alizia Otxoa**

**Kaixo Nagore, zer moduz?**
Ondo, ondo Alizia, puentean, umeekin eta, jai eguna.

**Pozten naiz. Ondo iruditzen bazaizu, bidali nizun ildotik jarraituko dut.**
Bai bai.

**Iruditzen zait oso bolada oparoa izan duzula azkenekoan, ezta? Nola sentitzen zera? Nola jaso duzu hori dena?**
Ba, orain ondo sentitzen naiz. Azkenaldian bai, azken urte eta erdia edo oso mugitua izan dut. Lan dexenterekin, eta gero, ba, *Querer*rekin esposizio dexentearekin. Eta oso ondo bizitako gauza bat, gustora. Orain lasaiago, ni digestio luzekoa naiz, orduan, hainbeste lan eta gero, orain ondo etorriko zaidan temporada bat daukat, pixkat lasai hartzeko eta egindako gauza guztiak asimilatzeko, eta aurrera begira nondik jo nahi dudan ikusteko. Nik behar izaten dut denbora pixkat, eta orain justu hori tokatzen zait, ez daukat aurre ikusita berehalako lanik, eta horrela nago, digeritzen eta digestioa egiten. Orain estreinatuko



Nagore Aranburu *Querer*en, Movistar Plus
Argazki **Sergi Gallardo**

diren lanak egitea tokatu zait, laupabost proiektutan lan egiten ibili naiz eta hori asko da niretzat. Lan hauek ikusteko eta estreinatzeko zain nago orain, eta ixiltasunera bueltan, burrunbada horretatik ixiltasunera bueltan nabil.

**Irakurri nuen, *Los Domingos* ari zinetela filmatzen.**
Bai, baina bukatu genuen apirilean. Apirilaren 14ean bukatu nuen nik eta pelikula ere bukatu dute rodatzez. Hau izan zen nere urte itxiera bezela, Alaudarekin berriz lan egin eta hori bukatu dudanetik deskantsua hartuta nabil, izandako urtea eta gero.

**Esaten nizun lehen, badirudiela ez zarela oso sare-sozial zalea, beste edozeinek zure ibilbidearekin, ehun mila argazki eta bideo izango lituzke. Zuk, ematen duenez, zaindu egiten duzu zure intimidadea eta zure bizitza profesionala ere.**
Bai, neretzat gainera oso rezientea da, ni eta sare sozialen arteko erlazioa. Ni antigualekoa naiz, gu lanean hasi ginenean ez zegoen horrelakorik. Lanerako tresna bat iruditzen zait, berria neretzat, eta erabiltzen ikasten ari naiz. Bakoitzat bere gustoko neurria hartu behar diola iruditzen zait. Eta nere neurria da erakusten dedana, ez det hori baino gehiago nahi, behar. Ez nago ohituta, lehen ez zegoelako eta publikoki gauzak azaltzea neri ez didalako mesederik egiten iruditzen zait. Erosoago nago horrela, iritziak eta bizitza pertsonala adibidez intimidadean nahiago ditut. Jendeari gauzak helaraztea gustatzen zait, baina tamainan. Ez dit denbora gehiegi kentzen eta gainera ez det asmatzen oso ondo zer jarri eta zer ez. Pixkanaka eta buruhauste gehiegirik gabe, egia esan, ni sare sozialekin. Orainarte bezela nahikoa dauket.

**Baina, naiz eta zuk sare sozialetan gehiegirik ez jarri, interneten, badakizu, kristo guztiak idazten duela eta zure ibilbideari buruzko datuak badira. Gauza asko egin dituzu, urte asko dira, aktore, gidoilari, irakasle… Denetarik egin dezu, gidoilari bezela ere sari bat jaso duzu, baina iruditzen zait zure ibilbidean badaudela mugarri batzuk. Agian nik ikusten ditudanak ez dira zuretzat direnak, *Loreak*ekin hasita, ohiartzun handia izan zuena, *Patria*, *Hondar Ahoak* eta Competencia Oficial ere, *Irati*, *Querer*… Hauek dira zuretzat inportanteenak, edo zuk beste balorazio bat egiten duzu? Eta hauek zer suposatu dute zuretzat?**
Esan dituzun guzti horien balorazioa oso positiboa, niretzat oso kuttunak izan dira lan hoiek, izan dira oihartzun gehien eman didaten lanak. Agian *Loreak* izan zen hemen lehenengo pelikula sekzio ofizialean euskeraz. Ez dakit euskeraz lehenengoa izan zen, datu horiekin beti nahastu egiten gara, baina oihartzun handikoa, asko gustatu zena eta rebulsibo bat izan zen hemen. Eta honen parte izatea, nahi ta nahi ez, guri ere gauza asko mugitu zizkigun, adibidez, Espaina mailan, jendea begiratzen hasten da eta gure lanarentzako bai, mu-





Nagore Aranburu Argazki **Dani Blanco, ARGIA 2011** eta *A cuestas con Murphyn* Argazki **Iñaki Salvador, VAIVÉN**

garri bai izan zen, geldiune importante bat. Pelikula ia gehienak izan dira, *Hondar Ahoak* seriearekin ere oso momento polita izan genuen, nik personaje hori asko asko maite det, bigarren zatia egin degu orain. Koldokin ere oso gustora ibiltzen naiz lanean, oso oihartzun polita izan zuen, oso harrera ona. Competencia ere, adibidez, beste maila bateko izarrek edo nola lan egiten duten ikusteko aukera izan nuen.

**Klaro, Penelope Cruz, Antonio Banderas…**

Ikusle moduan egon nintzen hor, haiek nola lan egin eta mugitzen diren, beste presupuestu eta modu batzuetako lanak ikusteko aukera. Eta azkenaldian *Querer*-ekin, pertsonaje oso polit bat lantzeko aukera izan det eta ikaragarri gustatu zitzaizkidan istorio eta premisa baten parte izatea. Harrera oso, oso ona izan du eta polita. Eta mugarriak aipatzen dituzula, neretzat badira ibilbidean garrantzitsuak izan diren beste gauza batzuk, lehenengo lana eta horrelakoak. Jaun ta jabe gogoratzen det oso kuttun bezela, neretzat 21 urterekin lehenengo lana izan zena, Eneko Olasagasti eta Carlosekin, Jose Ramon Soroiz ikusi nuen egunean ia mareatu nintzen. Pertsonalki oso momento kuttunak dira, Ados Teatrorekin egin nituen obra guztiak, Vaivén… hastapen hauek asko gogoratzen ditut. Telebistan ETBn denbora asko egon nintzen lanean gidoilari moduan eta oso talde politekin lanean, Telmo Esnalekin eta Asier Altunarekin egindako lana. Oso garai kuttuna.

**Proiektu askorekin bai.**

Urte asko dira eta, ia 30 urte lanean hasi nintzenetik. Zortekoa izan naiz, ez naiz gelditu, gauza ezberdinak egin ditut hemen, eta kuttunak asko ditut bai, eta ikasteko aukera izan det lan bakoitzean. Zortekoa naiz.

**Eta zineman behintzat, egiteko modu bat adierazi dezu, ezta? Zure kontentzioa, indarrez... *Loreak*-en inpresionatu ninduen eta *Querer*-en zer esan, zure zigilu propioa daukazu.**

Hara ba, hori, kontentzioaren alde hori esan izan didate, asko markatzen dute egindako lanetan. Baita ere da zertarako ikusi zaituzten, norbaitek halako istorio bat daukanean burura etortzen zaion jendea. Errepikatzen ditugu egiten ditugun gauzak, askotan. Eroso sentitzen naiz hor, nere izakerarekin badaukalako zerikusia, eta eginda daukadalako lanketa hori, gero zinean pertsonaiak egiteko. Nahiko eroso ibiltzen naiz. Gero beste moduko pertsonaiak iristea zailagoa izaten da, iristen dira ere, baina hor gustora nabil eta gustatzen zait zerbait esaten denean, edo ez denean esaten, eta begiradan edo gorputzean beste zerbait nabari denean. Lan horiek egitea asko gustatzen zait, kontradikzioa lantzen delako…

**Benetakotasuna…**

Bai, ni hor, benetakotasunean askoz erosoago nago; imitazioak egitea, beste toki batzuetan sartzea gehiago kostatzen zait, lotsagatik edo… Hor erosoago nago, bai.






Nagore Aranburu Feroz Sariarekin
E.P. El Diario Vasco 2024 eta Zinemaldian
Alauda Ruiz de Azúarekin batera Argazki **EFE**

**Ba asmatu omen duzu erabat, zeren sariak jaso baitituzu egindako lanengatik. Eta, poztutzen naiz gogoratzeaz, interneten azaltzen diren lehenengo biak EABk emandakoak direla: errebelazio saria 1999.an eta 2003.an, Patxi Perezek gogoratu zigun bezela, aktoresa oneraki Jokulari saria.**

Bai oso kuttunak ditut nik hoiek. Vaivenekin egin genuen obra, bai, *A cuestas con Murphy*, eta Patxirekin egiten nuen lan eta zoragarria izan zen esperientzia. Santiago Sanchezekin lana egiteko aukera izan genuen, inprobisaketetan. Eta gero saria etortzea gainera. Bai, oso kuttunak sari horiek ere.

**Tokion ere, Latin Beat festibalean, *Loreak*-engatik aktoresa onenari saria ere jaso zenuen. Eta ez dakit besterik ahazten dudan.**

¡Qué va! Ez, ez, kortoren batengatik edo besteran bat, baina ez, hehe, besterik ez dut. Gero, azken biak.

**Hori da, azken hauek, Forquè eta Feroz.**

Bai, oihartzun mediatiko asko izan dute. Gainera, ni nominatuta nengoen kategorietan aktoresa ikaragarriak zeuden ikaragarrizko lanekin, eta hor egotea bakarrik, zen… pasada bat.

**Zorionik handiena, izugarri poztu ginen.**

Bai, gainera oso polita izan da, ze sarien erantzunean, hemengo lankide pila batek idazten dizute, zurekin egoten dira, eta oso erantzun polita da. Hemen dagoen elkarrekiko eta bestearen lanarekiko errespetua eta miresmena oso polita da. Maitasun asko jaso nuen.

**Pozten naiz. Asko galdetu dizut ikusentzunezkoez, baina antzerkian ere ibilbide luzea daukazu, talde askorekin egin dezu lan. Aipatu dugun Vaivenekin egindako *A Cuestas con Murphy*-z gain, besterik aipatu nahi?**

Aspaldi ez det antzerkian lan egin, gehio izan da audiobisualean urte askotan. Baina nere hastapenetan bai lan dexente egin nuela antzerkian. Nere aktore bezela hasiera antzerkia izan da, Azpeitiko talde amateurrean, ni hortik nator. Vaivenekin lan egin nuen eta nere hastapenak Adosekin izan ziren, oso maitea det taldea eta hango jendea. Gaur egungo egoeraz hitzegiten ez naiz ausartzen, ikusle bezela esan dezakedana bakarrik. Vaiven taldearen itzaltzea, adibidez, Euskal kulturarako galera haundia iruditzen zait. Horrelako talde bat itzaltzen denean asko galtzen degu, antzokietan egoten den komunikazio horrek duen garrantzia.

**Ados. Besterik aipatu nahiko zenuke?**

Ez, ez.

**Ba orduan mila esker, mila esker ratotxo bat guretzat gordetzeagatik.**

Zuei Alizia, izandako pazientziagatik. Eskertzen dizuet.
**Plazerra izan da. Besarkada haundi bat.**































# ESKERRIK ASKO VAIVÉN


HAPPY END
UNA COMEDIA MUY NEGRA
DE VAIVÉN PRODUCCIONES
XABI DONOSTI
VITO ROGADO
ANA PIMENTA
DIRECCIÓN: IÑAKI RIKARTE
vaivén producciones


VAIVEN PRODUCCIONES PRESENTA
LAS INALAMBRICAS
ESCRITA POR
ANTONIO MUÑOZ DE MESA
OLGA MARGALLO
DIRIGIDA POR
OLGA MARGALLO
MÚSICA
IÑAKI SALVADOR
CON
MARINA APARICIO
GETARI ETXEGARAI
AINARA ORTEGA
¡Una comedia muy musical para toda la familia!


vaivén producciones
AURKEZTEN DU
Gazteei zuzenduriko sexu komedia
Lotsa gabe
GARBI LOSADA | FELIPE LOZA
Asier ORUESAGASTI · Oihana MARITORENA · Kepa ERRASTI · Erika OLAIZOLA · Ainara ORTEGA
DORLETA URRETABIZKAIAk zuzendua | Jatorrizko musika IÑAKI SALVADOR


vaivén producciones
MASUSTONDOEN PATIOA


Meridional // Vaivén // El Gatoverde presentan
MEFISTO
FOR EVER
de Tom Lanoye
Adaptación libre de "Mefisto" de Klaus Mann
Dirección: Álvaro Lavín
Sonia Almarcha // Elisabet Gelabert // Iván Villanueva // Fátima Baeza
Darío Frías // Paula García Lara // Nacho Redondo // Cristina Varona


Vaivén Producciones
aurkezten du
MIAULESS
iñigo gastesi · oihana maritorena · ainara ortega · kepa errasti
dorleta urretabizkaiak zuzendua
itziar pascual-ek idatzia
vaivén


vaivén producciones
Teatro
a cuestas con
Murphy


vaivén producciones presenta
Yo, la peor del mundo
escrito por Antonio Muñoz de Mesa
dirección Olga Margallo
música original Iñaki Salvador
el musical


Sofi Oksanen
vaivén producciones
Purga
Dirección de José Herrero


vaivén producciones
VAIVÉN 25 AÑOS
PRESENTA
REDADA FAMILIAR
(UNA COMEDIA PARA NO FIARSE DE NADIE)
Texto: Antonio Muñoz De Mesa
Dirección: Olga Margallo
Kerea Gorriti, Mikel Laskurain, Ana Pimenta, Xanti Korkostegi
Con la colaboración especial de AITZIBER GARMENDIA


Terapias
de christopher durang
versión y dirección rafael calatayud
una coproducción de vaivén y la pavana


Sherezade
eta tipularen
azalak
(ipuin tragikomiko bat)
José Carlos García
Ramón de los Santos
Ainara Ortega
Xabi Donosti · Iraia Elias · Miren Tirapu


Último Tren a Treblinka
(un homenaje a Janusz Korczak)
Autor:
Patxo Telleria
Dirección:
Mireia Gabilondo
vaivén


vaivén
TEATRO
VICTOR BEVCH
Blanco
Europeo
Varón
Católico
Heterosexual

# VAIVÉN TEATRO
## VIAJE A NINGUNA PARTE, ÚLTIMA PARADA

Texto **Ana Pimenta**

Eskerrik asko, bihotz bihotzez, por brindarnos este espacio de despedida. Desde que comunicamos nuestra decisión en los medios y en las redes, habéis sido muchísimos quienes nos habéis escrito o dejado mensajes entrañables. No hay como irse para que nos valoren y nos echen de menos (es broma, claro).

Ha sido un mes y medio muy intenso porque hablar de ello en cada entrevista o comunicación te obliga a revivir incesantemente los espectáculos, a recordar ensayos, estrenos, anécdotas y también "marrones", naturalmente.

Pero la memoria es caprichosa y no recuerda de manera lineal, sino a saltos y a borbotones. Lo mismo aparecen imágenes conmovedoras del orfanato de *Último tren a Treblinka*, que un corral bellísimo de Almagro a las doce de la noche presentando nuestra Yo, la peor del mundo, que un público en pie aplaudiendo a nuestra abejitas de *Erlauntza*, que 300 chavales en la Niessen de Rentería en silencio en un coloquio de Lotsagabe, que nosotras brindando alrededor de una mesa cantando a gritos una de Chavela, en nuestro *Club de las Mujeres Invisibles*, que abrazándonos de emoción cuando estrenamos *A cuestas con Murphy*, después de meses de ensayos e improvisación.

Y mucha carretera con y sin manta me transporta a *Redada Familiar* y las lágrimas me asaltan a traición al recordar la despedida de la gira en Medina del Campo, ¡qué familia! Y oigo la rumba de *Miauless* diciendo "errespetue" y me dan ganas de batirme en palmas. Y, de repente, me veo en Haro en el Festival de la Garnacha con nuestro *HappyEnd* y siento el dolor agudo de cuando me clavé un pico de la ventana de la escenografía y sangraba por cabeza y frente y el respetable decía: "¡vaya realismo!" (Al menos nos llevamos un par de premios en ese festival…).

También recuerdo las coreografías chisposas de *Terapias* y *Antígona* en Manizales, con un suelo de hormigón sin cuajar en el que nos quedábamos con los pies atascados. O nos veo en Hernani sujetando la escenografía de Bittor Ghezk, que se nos cayó por accidente y nos provocó mucha, mucha risa. Y también nuestro *Eduardo II* (interpretado magistralmente por el maravilloso Kike Diaz de Rada) en el Bellas Artes de Madrid, con un jet lag horroroso porque veníamos de Brasil y nos dormíamos por las esquinas. Y cómo no recordar ese afortunado *Nasdrovia Chejov* que nos trajo Max y más alegrías. Y me sorprendo tarareando un tema de *La Coraje* en ese nuestro primer espectáculo oyendo aún las notas del acordeón de Iñaki. Me siento en nuestro *Patio de las Moreras* y me brota una especie de rabia por su injusto y corto recorrido, mezclado con el sabor dulce que me viene al revivir como sale de él un público emocionado.

Sé que me dejo muchos espectáculos sin evocar aquí, sería imposible, pero todos mis compañeros sabéis que sois también alma y cuerpo de Vaivén.

Esta compañía de más de 28 años de trayectoria (los mismos que llevo en EAB), ha sido un paraguas debajo del que nos poníamos a resguardo cada equipo en cada proyecto. Para nosotros, en la mayoría de los casos, hemos sido compañeros de travesía donde cada un@ cumplía su rol de la mejor manera posible.

Lo cierto es que me hubiera gustado ser más actriz y menos productora, menos responsable de la compañía, no siempre vendedora y un largo etcétera de roles que supone el mantener estructuras pequeñas y frágiles como ésta.



Os puedo asegurar que si el oficio de actriz-actor es precario, muy precario, el de la mayoría de las compañías le va de la mano. El grado de autoexplotación del equipo es insostenible, el desgaste, agudo. A veces los espectáculos son mensajes en botellitas, tiradas al mar, que no encuentran destinatario. El mercado implacable y comercial juega con nuestros sueños o buenas intenciones y nos quedamos, como dice Serrat, "chupando un palo sentado sobre una calabaza", y como somos por naturaleza contradictorios, sentimos pena, alivio y orgullo al cerrar. Tristura por saber que ahora en el escenario las cosas pasarán sin nosotros, y aún nos quedaban proyectos por realizar. Orgullo por haber sido capaces de llevar a buen puerto ideas, textos y espectáculos que han emocionado e interpelado al público. Pero también sentimos alivio por no sufrir ya tanta responsabilidad, por no tener que cubrir tantos agujeros, también económicos, por no estar en vilo constante, por no arrastrar tanto estrés y sus amigos los derivados, por no volver a enfadarnos con algunos programadores caprichosos, por no hartarnos de la insuficiente política cultural, por no sentir impotencia al ver teatros muchas veces casi vacíos. Pronto, de todo ello, no nos tendremos que ocupar, excepto de asistir a las salas y seguir peleando por formar parte de esa comunidad crítica que acude al ritual del teatro para sostener sus mimbres y sentirse viva.
Pero llegamos a este final agradeciendo a la vida el haber podido sobrevivir de nuestra vocación y de nuestra pasión y aceptando con humor lo que tenga que llegar. Nos vemos en los teatros.



# ENTRE LA POLIMATÍA Y EL GALIMATÍAS

Las casi tres décadas de vida de Vaivén han sido un verdadero viaje a ninguna parte (bendito Fernando Fernan Gómez) y una travesía a todas las partes inimaginables. He sido testigo de excepción del impulso, talento, trabajo y sana obstinación de mi compañera de ruta, Ana Pimenta, verdadera mujer del Renacimiento. Se atribuía a los próceres de aquel movimiento cultural de los siglos XV y XVI el don de la polimatía, la sabiduría que abarca conocimientos de muchas y muy variadas disciplinas. Ha necesitado ella de esa versatilidad para llegar al buen puerto en que ahora nos encontramos. Ha sido Ana capitán y grumete del barco al mismo tiempo. O también podría evocar a la diosa Durga del hinduísmo, en esa iconografía que la representa con diez brazos.
Nuestra nao va a quedar atracada en el muelle para siempre. Pero no va a ser destruída, volada en pedazos como le sucedió al Virginian de Baricco, con el pianista del océano dentro, incapaz de bajar a tierra ni en ese postrero momento. Hemos aprendido muchas cosas y, entre ellas, quizá una de las más importantes: perder el miedo a bajarte del barco cuando el peso de la carga de las bodegas es excesivo o se corre el riesgo de que los caprichosos vientos imperantes sean quienes marcan la ruta y no tú.
Cada milla del viaje ha merecido la pena, y todas y cada una de ellas nos han hecho avanzar, nos han nutrido y nos han conformado y transformado. Gracias de corazón a los centenares de personas que habéis formado parte de la tripulación y al público que ondeó sus pañuelos a nuestro paso por cada orilla. Nos vemos en las tabernas del puerto.
**Iñaki Salvador**



*Masustondoen patioa*
Argazki **Vaivén**

# VAIVEN ANTZERKI KONPAINIARI

Eskerrik beroenak eta agur goxo bat bidali nahi dizuet, bai ikusle bezala, baita sortzaile bezala, azken 30 urte hauetan egindako lan paregabeagatik. Antzerkiari, kulturari eta bereziki euskal kulturari eskaini diozuen bihotzezko dedikazioa mirestekoa da, baina batez ere eskertzekoa. Zuen ibilbidea ausardiaz, sormenaz eta konpromisoz josia egon da, eta horren emaitza dena da gure gizartean utzi duzuen aztarna sakona, baina bereziki gugan utzi duzuen marka. Antzerkia bizi izan dugunok ondotxo dakigu zein gogorra den muntaia bat zutik jartzea, zein nekeza den dirua lortzea, programatzaileek erostea, sarean sartzea, ikusleak etortzea,… eta bereziki duintasunez lan egitea. Eredu bizia izan zarete, eta zoritxarrez belaunaldi berriak ez dira zuen puntxaz, indarraz, gogoaz eta konpromisoaz kutxatuko. Lastima! Zuek lanak ikertuko dira etorkizunean baina gaur egun zoritxarrez ez dute behar den babesik izan. Zer pentsarazi ematen du horrek. Gauzak aldatu behar direnaren adierazgarri dira.
Azken antzezlanean aktore eta itzultzaile gisa parte hartzeko aukera izan dut, eta ohore handia izan da niretzat. Lana egiteaz gain, adiskidetasun estu bat sortu da gure artean, eta horrek nire miresmena eta esker ona areagotzen ditu.
Zorionak bihotz-bihotzez eta aurrera beti, sormenaren bidea argitzen jarrai dezazuela. Zuek lanaren poderioz lortu duzuena aldarrikatuz… Gora antzerkia! Maite zaituztet,
**Aizpea Goenaga**

# VAIVEN AZALA, ANA ETA IÑAKI, BIHOTZA

Dos personas, dos corazones, bihotz biak antzerki talde batean elkarturik, creando un único corazón que baila en un mismo latido.
Taupada hau, duela hogeita zortzi udaberri jaio zen, Donostian, un latido que nació lleno de coraje, y que durante años ha ido pariendo hijos e hijas, bata bestea bezain maitatuak denak. Azken jaiotza, Masustondoz beteriko patio bat izan da, un patio cultivado con mimo, cuidado, amor y mucha valentía.
Seme alaba hauetariko askotan parte hartzeko zortea izan dut, y de crecer con, y junto a ellos, y de aprender de teatro, baina batez ere, de aprender sobre la vida y de cómo ser una ser humana más humana.
El vaivén de este no tan viejo latido, se para en su forma externa, pero resuena y resonará en todos y cada uno de los corazones de los que os hemos compartido.
El telón sigue latiendo, porque esto va, pero viene también. Se os quiere.
**Dorleta Urretabizkaia**



*Erlauntza* Argazki **Vaivén**

# EL ÚLTIMO VAIVÉN

Hablar de Vaivén es hablar de un clásico, de casita, de arte en estado puro, de amor, compañerismo y esfuerzo… Yo les debo mucho a muchas compañías de teatro, me han ayudado a formarme, a crecer, a ser quien soy, a pagar alquileres, hipotecas, comedores escolares, extraescolares, viajes, ropitas, lirilis y algún que otro lerele… Me han ayudado a crear una familia y a sentirme plena.

Pero hay una compañía en concreto de la que estoy muy orgullosa de haber formado parte: Vaivén. Me duele en el alma tener que decirte adiós, Vaivén de mi vida y de mi corazón, porque tener que decirte adiós a ti dice mucho de la sociedad en la que vivimos, de lo podridos que estamos, de lo mal que gestionamos las prioridades, sin pararnos a pensar en lo importante que es el arte en todo crecimiento personal y en el poder que tiene para cambiar conciencias.

En 1999 tuve el privilegio de desvirgarme en las tablas de manera profesional con *Lotsa gabe*. Gracias a Ana e Iñaki que, junto a Garbi Losada, entonces directora de esta maravillosa pieza que tantas alegrías nos dio, tomaron a bien incorporarme en el elenco de una de las piezas que más Vaivenes ha dado en la historia del teatro vasco. Aquí conocí a quienes hoy en día siguen siendo mi círculo más cercano, mis amigos. Gracias también a esta obra, la Unión de Actores Vascos me otorgó el premio a actriz revelación. Esto me hizo darme cuenta de que el camino elegido era el correcto y me dio fuerzas para seguir. Con mi primer sueldo me compré una bici super chula, no como las que me traía el Olentzero, y le hice un regalo a la madre que me parió, porque se lo merecía mucho; mi adolescencia no fue fácil…

En 2007 Vaivén me eligió para ser una de las tres *Inalámbricas*. Mi primer musical, un nuevo terreno a explorar. Y descubrí que otra puertita se abría porque, mira tú por dónde, también podía cantar. En esta etapa de la vida yo acababa de ser madre por primera vez y me tocó incorporarme al trabajo de manera bastante precipitada, con lo que ello supone, y el equipo de Vaivén siempre estuvo a la altura de mis circunstancias. Mi postparto no fue fácil…

Mi última participación en esta compañía fue en 2019 con *Erlauntza*: un regalo de la vida, una obra plagada de risas fuera y dentro de las tablas, una familia de señoras maravillosas con las que he reído, llorado, bailado, cantado y alguna cosa más. Hicimos una gran piña, me han dado millones de alegrías y me las guardo dentro para siempre… Porque mi crisis de los 40 no está siendo fácil…

Conclusión, en la vida hay muchos momentos difíciles, pero, si tienes la suerte de poder trabajar en compañías como Vaivén, todo se simplifica. Así que gracias, gracias y mil veces gracias, por haberme dejado ser parte de vuestra gran familia.

**Getari Etxegarai**



*Argiaren hautsa* Argazki **Vaivén**

# ESKERRIK ASKO BIHOTZEZ, VAIVÉN

Maiatzaren 18an, Donostiako Gazteszenan, "El último Vaivén" deituriko omenaldiarekin agur esan genion pena handiz Vaivén konpainiari. Hogeita zortzi urteko ibilbide honetan 42 ikuskizun ekoiztu dituzte, antzerki, musika eta oro har kulturaren erreferente bihurtuz. Era honetan, artea gizartea eraldatzeko tresna gisa erabili dute, inguratzen gaituen munduari begirada kritiko eta sentikorra emanez. Profesioarekiko pasioak, dedikazio eta lan nekaezinak, antzezlanetan erakutsitako sormenak eta kulturarekiko duten konpromisoak aztarna ezabaezina utzi dute.

Pertsonalki, maitasun eta harrotasun handiz esan dezaket Vaivén familiaren parte izateko aukera eta zortea izan dudala azken urteotan eta esker hitzak ditut soilik. Eskerrik asko zuen babes, adore, eskuzabaltasun, esfortzu, lan eta maitasunagatik. Eskerrik asko ere sortu dituzuen lan-talde zoragarriengatik eta ikuskizun hauetan zehar bizi izan ditugun momentu polit eta ahaztezinengatik. Zuen legatua oholtza gainean egongo da beti. Eskerrik asko bihotzez Ana eta Iñaki. Eskerrik asko bihotzez, Vaivén.

**Nerea Gorriti**

# *A CUESTAS CON MURPHY* CON VAIVÉN PRODUCCIONES

Debí de escribir una carta de agradecimiento a Ana Pimenta al terminar la gira. No recuerdo lo que le diría exactamente, pero lo que sí recuerdo son tres cosas: risas, risas y risas. Buscando inspiración para celebrar este homenaje me encuentro con esto:

> Querido Patxi,
> ¡Menudas cositas lindas que me dices!
> A mí también me encanta Murphy, pero no solo por el resultado, sino por el maravilloso proceso y el cojonudo equipo que hemos formado. De verdad, para mí sois "mi otra familia".
> Me gustaría que pudiéramos seguir currando juntos mucho tiempo, con esa actitud tan respetuosa hacia la libertad de cada uno, mezclada con una actitud de incondicionalidad y proximidad.
> Hacía años que quería currar contigo y no me extraña; esto de vivir es muy extraño, pero hay algunas personas, pocas, que hacen que el camino merezca la pena recorrerse.
> Besazo tierno.
> Ana la Colorines

Ana, Iñaki, siempre amadxs

**Patxi Pérez**



Pablo Razuk ikastaroa
San Bartolomeko entsegu-lokalean,
Donostia Argazki **Josune Gorostegi**

# HABITANDO LA ESCENA CON PABLO RAZUK

## ESKERRIK ASKO PABLO!

Asteburu honetan Pablo Razuken ikastaroa egin dugu. Egia esan plazer bat izan da. Pablorekin lan egitea sentikortasunarekin konektatzea izan da, ate bat irekitzea irudiz, emozioz, eta sentsazioez kargatuz orainaldia , eszenako orainaldian bizitzeko; Oso lan delikatua eta oso ederra. Pablok maitasun handiz gidatu gaitu, eta bakoitzak egin dugun horretan islatu da. Eszena zoragarriak ikusi ditut asteburu honetan, eta izugarri gozatu dut bai lanaz baita bildu ginen ekipoaz ere. Irrikan nago berriz Pablorekin lan egiteko.



**Josune Gorostegi**

## ¡OJALÁ FUESE UN CURSO ANUAL!

Solo pude asistir un día, el sábado, y lo disfruté muchísimo. Hacía tiempo que no participaba en un trabajo tan intenso y profundo; el día se me pasó volando. La experiencia me sirvió para incorporar nuevas herramientas actorales y para tomar conciencia de lo que necesito seguir desarrollando en este momento y mis limitaciones actuales. Es una lástima que no se trate de un curso anual, ya que creo que sería una experiencia profundamente enriquecedora. Razuk tiene la capacidad de verte, entenderte y guiarte de la manera más humana y sana posible. Gracias, Pablo, por tu trabajo; espero volver a coincidir contigo en un futuro no muy lejano.



**María Pastor**



# EMULAR UN RODAJE CON MIKEL RUEDA

EN COLABORACIÓN CON FUNDACIÓN AISGE

## ESCUCHAR Y COMPRENDER. APRENDE CÓMO ES UN RODAJE

Ha resultado un curso cercano donde se ha rodado desde la tranquilidad, la ausencia de tensiones y desde el compañerismo. Donde el director (Mikel Rueda) ha transmitido tranquilidad, buen ambiente y empatía ante cualquier zozobra y propuesta que el guión pudiera producir, bien sea en la primera lectura o a la hora rodar con las acciones físicas del personaje. Intentando que el alumno estuviese lo más cómodo, tanto durante la lectura del guión, como durante el rodaje de la secuencia. Dicho planteamiento es de agradecer. Ya que ayuda a disminuir inseguridades ante la cámara y saber cuál es el objetivo del director.



Muchas gracias, Mikel.

**Gaizka Mikelarena**

## EDERRA!

Ederra izan da Mikel Rueda zuzendariaren lan egiteko modua ezagutzea. Asteburuan zehar egiazko filmazio baten barruan sentitu gara. Bikoteka, eszena desberdinak grabatu ditugu ekipo tekniko profesional batekin, kalitate handiko materiala sortuz. Bistan da Mikelek istorioak sortu eta adierazteko duen gaitasuna, eta miresgarria aldi berean nola menperatzen duen aktoreen zuzendaritza. Ondorioz, eszena guztiak mimoz eta pazientzia handiz landu ditugu. Bestalde, errodaje batean eroso sentitzeko gure beharrak azaleratzea azpimarratu du. Aktore askori beldurra ematen digu “Pelmak” izatea, eta askotan horregatik ixildu egiten gara egoera deserosoen aurrean. Mikelek behin eta berriz esan digu barruan duguna azaleratzeko eta gure buruari balioa emateko. Kurtsoan asko ikasi dudala sentitzen dut eta oso gomendagarria iruditzen zait. Mila esker aukera emateagatik!



**Amaia Ruiz de Galarreta**






Ezkerreko orrialdea Mikel Rueda
Espacio Invisiblen, Bilbao
Eskuineko orria Librería Re-read,
Bilbao Argazkiak **María Pastor**

## ZORAGARRIA IZAN DA

Beti izan dut gogoa bertatik bertara ezagutzea nola den Mikelekin lan egitea, berak zuzendu dituen proiektuak asko gustatu zaizkidalako. EABn aukera ikusi nuenean, zalantzarik gabe egitea erabaki nuen, Iruñetik-Bilbora joan behar izan arren eta ia atsedenik gabeko 3 eguneko asteburu intentsoa izan arren. Erosotasun-gunetik irtetea oso ondo etorri zait, beste leku batetik kokatzeko.

Filmaketa erreal bat simulatzea eta filmaketan gertatzen diren gauza guztietatik ikastea oso interesgarriak izan dira. Gainerako aktoreen eszenak nola grabatzen diren ikusita ere, asko ikasten da. Lehen eguneko hizkuntza zinematografikoari eta separaten azterketari buruzko teoria ere oso aberasgarria izan da.

Une oro, garrantzitsuena, Mikelen aldetik jasotako giza tratua izan da, aktoreari ingurune seguru eta babestu batean sentiarazten zaituelako. Berriro errepikatuko nuke ikastaroa bi aldiz pentsatu gabe. Ezagutu ditudan beste aktoreengatik eta teknikariengatik ere, gauza asko eramaten naiz. EABk, industriako euskal aktoreak eta teknikariak ezagutzeko aukera ematen dizkizu, komunitate bat egiteko modua. Eskerrik asko Mikel eta EAB. Beste bat arte!

**Alain Elizalde**






EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Gipuzkoako Foru Aldundiak
Diputación Foral de Gipuzkoa
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
Bilbao
aisge FUNDACIÓN
bilbo eszena